

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Tolosako Udaletxean, 2014ko otsailaren 25ean, arratsaldeko 7,30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo aztertzeke udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 25 de febrero de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Asier De los Rios Soraluze
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Mikel Arreseigor Astibia
Rosa Maria Urkola Irigoyen
Jon Koldobika Arsuaga Artola

Olatz Peon Ormazabal
Ainhoa Etxeberria Aranburu
Jon Aldazabal Etxeberria
Jokin Azkue Arrastoa
Nuria Carbonell Miranda
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez bertaratuak:

Nerea Letamendia Belloso
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin-behineko Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Eguneko gai zerrenda

Orden del día

1.- Ondorengo akta onartzea:

2014ko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkurakoa

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2014ko urtarrilaren 2tik 31ra (1/2014-183/2014).

3.- TÜV Rheinland Iberica, SA, enpresak aurkeztutako mozioaren onarpena.

4.- Martxoaren 8ko adierazpen instituzionalaren onarpena.

5.- Euskadi-Sahara Koordinadorak aurkeztutako mozioaren onarpena.

6.- Sistema Elektrikoaren Erreforma Legearen aurreproiektuari buruzko mozioaren onarpena.

7.- Erregu-galderak.

1.- Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 28 de enero de 2014.

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 2 al 31 de enero de 2014 (1/2014-183/2014).

3.-Aprobación de la moción presentada por la empresa TÜV Rheinland Iberica, SA.

4.- Aprobación de la declaración institucional del 8 de marzo.

5.-Aprobación de la moción presentada por Coordinadora Euskadi-Sahara.

6.- Aprobación de la moción sobre el anteproyecto de la Ley de la Reforma Eléctrica.

7.-Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.- **Ondorengo akta onartzea:**

2014ko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkurakoa

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

1.- **Aprobación de la siguiente acta:**

Sesión Ordinaria de 28 de enero de 2013.

2.-**Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

2014ko urtarrilaren 2tik 31ra (1/2014-183/2014).

2.-**Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

Del 2 al 31 de enero de 2014 (1/2014-183/2014).

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Alkatetzak, 2014ko urtarrilaren 2tik 31ra bitartean (1/2014-183/2014) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

3.- TÜV Rheinland Iberica, SA, enpresak **3.-Aprobación de la moción presentada por la empresa TÜV Rheinland Iberica, SA.**

Lehenik Idazkariak irakurri du aurkeztutako mozioa eta, jarraian, publikotik ITV-ko langileak parte hartzen dute, hau DVDan jasoko da.

Jose Ignacio Asensio Basterrak, PSOE eta Jokin Azkue Arrastoak, EAJ, bigarren puntua argi ez dute ikusten eta zenbait azalpen eskatu dituzte:

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ: *“Bigarren puntua planteatzen bada aldatzea eta jartzea “kontzetsioko baldintzak betetzearena bermatzea Eusko Jaurlaritzak”, testu horrekin eroso sentituko ginateke, bestela ez da ondo ulertzen.”*

Publikotik erantzuten da 2. puntua ITVko dekretuaren hitzez-hitzeko kopia dela.

Alkateak galdetzen du ea onartzen duten aldatzea 2. puntua. ITV-ko langileak puntu hori aldatzearekin ados egonik, mozioa horrela geratuko litzateke:

“TÜV Rheinland Iberica, S.A., derrigorrezko ibilgailuen azterketako zerbitzu publikoen ustiatze emakidaduna da EAEko 8 IATetako 2retan (Urnieta eta Irunen), Eusko Jaurlaritzako Industria sailak 30 urtez 1994/01/01 2023/12/31ra aktibitate honen ustiatzaile erregimenaren esleipena medio. Ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzu publikoan ezarritako kontzesio kontratuko erregimen juridikoan, bertan EAEko Industria zuzendariak zehaztutako lege eta arauak biltzen direlarik, Urnieta eta Iruneko IATetako kontzesiodun TÜV Rheinald Ibericari ezartzen zaizkio zerbitzuaren inguruko xehetasun guztiak, EAEko IATetako langileen baldintza nahiz eskuduntzak zehazten direlarik.

Gipuzkoako IATetako langileen baldintzak zehaztu eta erregulatu dituen marku legala, Gipuzkoako PRECO “greba amaierako” akordioa da, sei hilabeteetako greba ondoren, TÜV Rheinald Iberica, SA, enpresa kontzesionario eta langile batzordearen artekoa. Bertan, langileen lan baldintzen gain, aktibitatearen kudeaketa zuzena eta IAT zerbitzu publikoa egokia eskaintzea bermatzen da.

Akordio honen iraupena 2011/12/31n amaitu zen eta enpresaren jarrera orain arte ezkorra izan da akordio hau berritu eta eguneratzeari dagokionez, horren ondorio dira langileen geldialdi eta mobilizazioak, egoera desblokeatze aldera protesta moduan.

2012an IATko zerbitzuak 126 egunez izan du honen eragina, eta 2013an, 65 geldialdi egun eta ekainaren 15a ezkerotik orain bitarte 160 egun baina gehiago dira greba egunak, enpresak langileei akordio hau berritzeko aukera ematen ez dielarik.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Gatazkaren ondorioak herritarrentzat beste lurralde batera joan beharra da IATa egitera, gehiengoa Nafarrora, bertan enpresa kontzesioduna TÜV Rheinland Iberica, SA, delarik Donezte, Arbizu eta Berriozar kasu. Horrela gipuzkoar IATko erabiltzaileak bereak diren nafar IATetara joatera behartzen ditu eta bertan ordu luzeetako ilara itxaronaraztera. Beste zenbait gidarik aldiz ez dute IATrik egiten eta Irungo IATak eskaintzen dituen ordu apurren zain gelditzen dira (40 egun batazbeste).

EAEko administrazioagan kaltea azterketen fakturazioan dagokion kanona jasotzen ez duelarik.

Gipuzkoako foru aldundian kaltea fakturako jasotzen duen BEZaren etorria izango ez duelarik.

Errepideetako segurtasunean ere eragina du hainbat ibilgailu derrigorrezko IAT azterketa ikuskatu gabe dabilzalako hauen gidariak beste lurralde batera ez joatea erabaki dutelako, administrazioak derrigorrezko tramite hau Gipuzkoan normaltasunez egiteko aukera bermatu behar duelarik.

Hau guztiagatik IATen kudeaketa EAEko administrazioiko Seguritate Industrialeko Sailekoa izaki non kontzesio erregimena enpresa pribatuena den, Eusko Jaurlaritzako Industria saileko zuzendariari dagokio IATen zerbitzuei buruzko hitzarmena betetzeko ardura zuzena. Denbora hau guztia igaro ondoren, ez da arrazoizkoa enpresari eman nahi ez dion gatazka hau erabiliz. Bestalde, langileok ez dakigu Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak txostenik baduen, informaziozkoa bada ere, edo administrazio beharturik dagoen auditoria eta azterketak bertan behera utziak dauden.

Urnieta eta Irungo langileak Industriari adierazi diote lehenbailehen adostasun batetara iristeko nahia, horrela IAT derrigorrezko zerbitzu publikoa 100%an eskaini ahal dadin, baita oraingo marku legalaren berrikuntza egokia burutu dadila. Gatazkaren amaiera berehalakoa izango da enpresak langileek onartuak dituzten eskubideak errespetatzeko borondatea badu. Hau dela eta, Urnieta eta Irungo langileek legezko ordezkariaren bitartez:

ESKATZEN DUTE Erakundearen babesa, behar beste mugimendu burutuz, Eusko Jaurlaritzari presatzeko:

- 1.- Beharrezko diren egin ahalak burutu ditzan lehenbailehen TÜV Rheinlan Iberica, SA, enpresa kontzesiodunarekiko gatazka konpontzeko non milaka gipuzkoarri eragiten dien.
- 2.- Kontzesiodunari betearaztea Urnieta eta Irungo IATen esleipenek arautzen duten baldintza orrietan xedatutako guztia."

Jarraian mozioa bozketara jarri da eta Udalbatzak, aho batez, **onartu du**.

...Ibai Iriarte San Vicente: "Nire aldetik babesa eskaini. Zortzi hilabete greban egotea oso gogorra da. Oso ausartak izaten ari zarete. Enpresa ere sustatu behar da, hitzarmen hau sinatu behar da, bestela ez dut jakin nahi zer izango den zuen lan baldintzen eta zuen lan eskubideetaz. Beraz, animo, eta, alhal den neurrian, laguntzeko prest gaude."

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

4.- Martxoaren 8ko adierazpen instituzionalaren onarpena.

4.- Aprobación de la declaración institucional del 8 de marzo.

Idazkariak mozioa irakurri du. Honek honela dio:

“Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, aukera ona dugu omenaldia egiteko munduko emakume guztiei, batzuetan beren bizitzak arriskuan jarrita ere, euren eskubideak lortu eta defendatzeko borrokan ibili diren eta dabiltzan emakume guztiei. Egokiera ona da, baita ere, feminismoa zer den aitortzeko: kultura eta filosofia bat, gizateria osoarentzat beharrezkoak diren balioetan oinarritzen dena. Berdintasunak pertsona guztien autonomia garatzen laguntzen du, elkartasunean oinarritutako balioak indartzen ditu, parekoen arteko hartu-emanak sustatzen ditu, eta demokrazia hobetzen laguntzen du.

Berdintasuna giza eskubide bat da, jendarte osoari on egiten dion eskubidea.

Baina hausnarketa eta balantzea egiteko ere aukera ona da, emakumeok orain arte lortutako askatasun eta eskubideak galtzen ari garelako. Krisiaren aitzakian, lan baldintzak okertzen ari dira orokorrean eta emakumeentzat are gehiago. Bestalde oraindik ere etxeko lanak eta zaintza-lanak emakumeen bizkar erortzen jarraitzen dute hein handi batean.

Ahaztu gabe, Madrilen lantzen ari diren abortuaren kontrarreforma. Aurreko Osoko Bilkuran aurkeztu genuen horren aurkako mozioa eta bertan esaten genuen bezala, hamarkadetan arlo horretan egindako aurrerapausoak zapuzten dituena. Familia-eredu tradizionala edo heteropatriarkala indartzea helburu duena eta emakumeari bere gorputz eta bizitzarekin zer egin erabakitzekeo eskubidea ukatzen diona.

Iritzi publikoari dei egiteko eguna ere badugu, aldarrikatzeko eguna, zeren eta aurrerabide sakonak lortu baditugu ere, oraindik ere luzea da emakumeen eta gizonen artean berdintasun eraginkorra lortzeko bidea, eta ez da, ez, sufrimendurik gabekoa izango. Berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea erronka da oraindik ere.

Baina, horretaz gain, batez ere konpromisoa hartzeko eguna da. Horregatik, gure ustea berretsi nahi dugu: irmoki uste dugu jarraitu egin behar dugula ekintzak bultzatzen, emakumeen eta gizonen artean berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko behar diren beste ekintzak bultzatzen, horrela lagunduko baitugu gizarte eraginkor, solidario eta justuago bat eraikitzen.

Guztiontzat eskubide berberak lortzeko bidean aurrera egiteko, beharrezkoa da elkarlana, etenik gabe elkarrekin lan egitea gizarteak, emakumeek eta gizonen, gizarte zibilak, alderdi politikoek eta botere publikoek. Horregatik nahi genuke adierazpen hau planteamendu ideologikoetatik harago joatea, inguruabar sozial eta ekonomikoetatik harago, baita une jakin batetik harago ere, hots, martxotik harago. Izan bedi jarrera irmoa eta iraunkorra, izan bedi gure ekintzen ardatza urteko egun guztietan. Justizia sozialak hala eskatzen duelako, eta gizarte osoaren onerako izango delako.

Udaletik ari gara eta jarraituko dugu berdintasun politikak garatzen, jendarte parekideago bat izateko bidean programak eta proiektuak martxan jartzen, horren adibide ikastetxeetan lantzen ari garen hezkidetza programa, urtean zehar antolatzen den jabetze-eskola, besteak beste.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Horregatik, 2014ko martxoaren 8aren inguruan Tolosako Udalak borroka feminista indartzeko konpromisoa adierazten du eta herritarrei dei egiten die Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan antolatuta dauden ekitaldietan parte har dezaten.”

Parte hartzeak:

- ... Olatz Peon Ormazabal, EAJ: *“Nazio Batuen erakundeak, 1975 urtean martxoaren zortziari eman zion emakumeen nazioarteko eguna izena. Ospakizun honen harira, EAJ/PNV-ek aitortu egiten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, giza eskubide izateaz gain, gobernu honetako faktore oinarrizko eta ezin bestekoa dela eta, horrekin batera, Euskadiko giza garapenaren eta gizartearen garapen sozial eta ekonomikorako elementu beharrezkoa. Berdintasunerako bidean aurrera pausoak eman behar dira, bai, baina luzea da oraindik egin behar den ibilbide zatia; oraindik ere, XXI. mendean eta mendebaldeko gizartea deitzen den honetan, gizonak emakumeak baino gehiago direla pentsatzen da eta haiek egiten dutena garrantzitsuago dela uste. Garrantzitsuagoa delako ustea, zabaldua dago hainbat gazte jendearen buruan, errotuta dagoen pentsamoldea, hori da esparru ugarian desberdintasunak eta diskriminazioa betikotzea eragiten duena. Oraingo testu inguru sozial eta politikoan kezka biziz egiaztatzen dugu berdintasunaren ameskeriak, berdintasun horren lorpen efektibo eta egiazkoa geldiarazteko mehatxua suposatzen duela. Arduratuta ikusten dugu orain arte lortutakoa atzerako pausoak ematen ari direla; horregatik uste dugu ekinean jarraitu behar dugula lan eginez eta ekinez, gizarte bidezkoago eta berdintzaileago lortzeko. EAJ/PNV-ek beharrezko eta premiazko jotzen du berdintasuna gauzatzeko behar den gizarte eraldaketa ekarriko den balore aldaketa, eredu patriarkal eta matxistatik jauzi egin behar dugu, eredu berdintzaile eta bidezkoagora sartzeko. Horixe izango da emakume eta gizonok lan esparruan emakumeen diskriminazioaren kontra lan produktiboaren eta ugalketa lanaren banaketa desorekatuaren aurka eta emakumeenganako bortxakerian kontra egin behar dugun borrokatik garaile irteteko giltzarria. Balore aldaketa hori sustatzea lan konplexua da, nor bana, bakoitzaren pentsamoldean eragitea suposatzen du. Horregatik EAJ/PNV-ren aldetik gizartea hau osatzen dugun pertsona guztiei dei egin nahi diegu gure eguneroko bizitzan, gure erabakien eta jarreraren bidez berdintasuna ahal bideraztea lor dezagun; emakume eta gizon guztion lana da. Horregatik guztiagatik, emakumeen nazioarteko eguna den 2014ko martxoaren 8 honetan, jakitun izanik berdintasunak gizarte gisa aurrera egiten laguntzen digula, pertsonen autonomia hobetzea ahal biderazten duela eta berdinen arteko harremanak eta errespetuan oinarritutako tratua sustatzen eta demokraziaren aurrera eginen uzten digula eta jakitun izanik. Era berean, genero arrakala ixteko lanean arrakastarik handiena lortu duten herrialdeek esparru ekonomikoan aurreratutakoak eta sozialki bidezkoagoak direla adierazten dugu emakume eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aurrera egiteko urrats sendoak ematen jarraitu behar dugula. Desberdintasuna betikotzen duten baloreak aldatzea sustatuz eta, horretarako, hitza ematen dugu beharrezko aldaketa bultzatuko dugula politikagintzan, nagusiaren eredu gizona botere lidergoan oinarrituta egoteari utzi diezaion. Eredu horren bizi iraupena, zaintza arduren banaketa ez ekitatiboari lotuta, eragozpen handia baita emakumeak politikagintzan sartzeko eta lor horretan aurrera pausoak emateko eta, oro har, emakumeek esparru publikoan parte har dezaten. Gizarte garatu eta aske batek ezingo baitu aurrera egin biztanleriaren erdi bati, beste erdiari ematen dizkion aukera berberak eman izan ezik.”*
- ... Rosa M^a Urkola Irigoien, Bildu: *“EH Bilduk bat egiten du emakume feministen mugimenduaren aldarriekin. Bizi-bizirik jarraitzen dute urteetako eskakizunek, gauzak ez konpontzeaz gain, zenbait eskubide eta lorpenetan atzera egin baitugu. Adibiderako, lan merkatuan gertatzen ari dena dugu. Arlo honetan lan-baldintzak orokorrean okertu badira emakumeei dagokienean; ziurgabetasuna eta prekarietatea areagotu egin direla zalantzarik ez dago.*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Bestalde, ezin ahaztu Madriletik aldatu nahian dabilzan abortuaren legea. Aurreko plenoan aurkeztu genuen horren aurkako mozioa. Ez dugu ezer berririk esango kontraerreforma horrek 40 urte atzera egitera eramango gaituela esaten badugu.

Udal gobernu hau jakitun da emakume eta gizon askeak, buru- eta gorputz-jabeak izateko heziketa zeinen garrantzitsua den. Horregatik, Berdintasun batzordetik Udal honek jarri du martxan Hezkidetza programa bigarren goz ikasturte honetan, Tolosako ikastetxeen esku.

Badakigu jendartea eraldatzea geure buruak ere eraldatzea esan nahi duela, eta barne-mailan gauza asko ditugu egiteko. Arrazoi horregatik aurten Udaleko sail guztietan lanean hasi gara genero ikuspegia zeharlerrotasunez lantzeko.

Hori guztia, alde batera utzi gabe, DBH eta Batxilerreko gazteekin garatu den "Hi haiz hi – Beldur Barik" programa sendotzen jarraituko duguna.

Amaitzeko, adierazpenean esan bezala, Udal gobernuak dei egiten die herritarrei, Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan, bai mugimendu feministak bai Udalak antolatu dituen ekitaldietan parte har dezaten."

Mozioa bozketara jarri da eta Udalbatzak, aho batez, **onartu du**.

5.- Euskadi-Sahara Koordinadorak aurkeztutako mozioaren onarpena.

5.-Aprobación de la moción presentada por Coordinadora Euskadi-Sahara.

Idazkariak mozio irakurri du. Honek honela dio:

"2014ko OTSAILAK 27

Zoritxarrez, azken urtebetean aurreko beste hainbat urtetan bezala Mendebaldeko Saharako gatazkaren zenbait arlotan atzerapauso larriak gertatu dira eta kasurik hoberenean ez da aurrerapauso garrantzitsurik eman. Honen erakusgarri dugu:

- Mendebaldeko Saharako lurraldearen bi herenen okupazioa, urtetan eta urtetan luzatzen dena eta indar militarrek babesturiko 2700 km luze den minaz josiriko hesi batek bermatzen duena.
- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiapena. Etenik gabe jarraitzen duena eta zenbait

"27 DE FEBRERO 2014

Desgraciadamente, durante este último año en igual que durante otros muchos en el conflicto del Sahara Occidental se han dado graves retrocesos ó en el mejor de los casos no se ha producido ningún progreso reseñable. Como ejemplo:

- La ocupación de dos terceras partes del territorio del Sahara Occidental, que se prolonga durante interminables años, y que se sustenta en un muro de 2700 km minado a lo largo de toda su longitud.
- La explotación y expolio de los recursos naturales del Sahara Occidental, que no se interrumpe, y en algunos aspectos como en el de los recursos

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

arlotan, arrantzaren kasuan bezela, europar batasunaren konplizitatearekin bermatzen dena.

pesqueros se ejecuta con la colaboración y complicidad de la UE.

- Mendebaldeko Saharako herritarren oinarritzko giza eskubideen etengabeko zangopilatzea. Saharar herritartasunaren aldeko aldarriak, okupazioaren inpunitatearen babespean itotzen jarraitzen dute. Urtez urte, giza eskubideen aurkako erasoen testigantzak, nazioarteko begiraleen pasibotasuna areagotzen den era berean areagotzen direlarik. Arlo honetan, gogoratu besterik ez dugu Nazio Batuen Erakundeak, munduan zehar hedaturik dituen bake misioen artean, Mendebaldeko Saharakoa dela giza eskubideen arloan eskuduntzarik ez duen misio bakarra.

- La continuada conculcación de los derechos humanos básicos de los ciudadanos del Sahara Occidental. Las legítimas reivindicaciones de la ciudadanía saharai continúan ahogándose bajo la impunidad auspiciada por la ocupación. Año tras año, los testimonios de ataques contra los derechos humanos aumentan en la misma proporción que aumenta la pasividad de los observadores internacionales. En este aspecto, no está de mas recordar que entre las misiones desplegadas a lo largo y ancho del mundo, la del Sahara Occidental (Minurso) es la única que carece de competencias sobre derechos humanos.

Guzti honengatik, eta gehiagorengatik, 2014ko otsailak 27an, ostirala, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 38. urteurrenean, Saharar jendarteari eta kausari atxikimendua adierazteko, "Otsailak 27" Euskadi-Sahara Koordinakundeak eskatzen dio udal horri, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren bandera udalean zintzilikatzea eta herrian izan daitezkeen konzentrazioekin edo mobilizazioekin herritarrei parte hartzera deitzea."

Por todo esto y mucho más, el próximo jueves 27 de febrero de 2014 en el 38 aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática (RASD), para adherirse a la población y a la causa saharai, la Coordinadora Euskadi-Sahara "27 de Febrero" solicita a ese Ayuntamiento que ize la bandera de la República Árabe Saharaui Democrática (RASD) en la fachada del Ayuntamiento e inste a su población a participar en las movilizaciones que se convoquen a tal efecto."

Mozioa bozketara jarri da eta Udalbatzak, aho batez, **onartu du** mozioa.

Parte hartzeak:

... Alkatea: "Otsailaren 27an, Ostegun Gizen eguna; 38 urte beteko dira Sahara Errepublika Arabiar demokratikoa aldarrikatu zela. Espainiar Estatuak, momentu honetan, bai juridikoki eta, zer esanik ez, moralki erantzukizuna dauka gaia honekiko. Abandonatuak izan ziren Espainiar herrialde edo Espainiar pasaportea zuten Espainiar hiritarrak ziren milaka eta milaka Saharar. Zer esanik ez

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

azkeneko urte honetan lurralde okupatuetan agertu diren fosa komunetan agertzen diren gorpuzkin horien dokumentazioa Espainola dela. Beraz, erantzukizun osoa du Espainiar Estatuak. 38 urte aldarrikatzen, 38 urte borrokan, 38 urte errepresioa jasaten, 38 urte beraien lurraldeetatik kanpo, 38 urte deserrian, 38 urte kolonizatuta, 38 urte beraien lurrak, beraien itsasoa lapurtua izaten ari dela, Europar Batasunaren konplizitatearekin. Beraz, 38 urte ilunetan pasatzen dituenak herri honek. Benetan gogorra da. Horregatik aipatu eta bat egin bihar, asteazkena, ilunabarreko zortzietan Triangeluan burutuko den kontzentrazioa. Eta Ostegun Gizenean, telebistan, Tolosako Udaleko fatxada erakutsiko dute eta bertan izango da Saharar bandera. Gure aldetik elkartasun guztia hainbeste sufritu duen herri honi eta euskaldunok hain gertu sentitzen dugun herri honi. Guk bat egingo dugu mozio honekin.”

Jarraian bozketan jarri da moizoa eta Udalbatzak, aho batez, **onartu** du.

6.- Sistema Elektrikoaren Erreforma Legearen aurreproiektuari buruzko mozioaren onarpena.

“Joan den uztailean, Estatuko Gobernuak arau-aldaketa sakonak egiteko prozesu bati ekin zion, Erreforma Energetikoa izenekoa multzokatuta. Era berean, onetsi berri du Sektore Elektrikoaren Legearen aurreproiektua ere, eta Gorteetara bidali du, urgentziaz izapidetzeko eta berehala indarrean jartzeko.

Ez da onargarria horrelako sakontasuna eta irismena daukan erreforma bat, azken 16 urteetan indarrean dagoen lege batek aldatzen baitu, lau hilabete eskasetan egitea, gardentasunik gabe eta inplikaturako eragileekin eztabaida egokirik gauzatu gabe.

Sektore elektrikoaren legearen erreformak zuzenean eragiten die tokiko korporazioei garrantzi handiko hiru gaitan:

Lehenik, elektrizitatearen prezioaren beste igoera bat, eta handia, ekarriko du –dagoeneko, %60 igo da azken 5 urteotan–, haren termino finkoa igo egingo baita. Elektrizitatearen kostua beti izan da udalaren aurrekontuko zati garrantzitsu bat, eta orain, gainera, aldizkako doiketara lotuta egongo da, eta ziurrenik, beti goranzko doiketak izango dira. Gainera, erreformak aukera emango die elektrizitate-konpainia

6.- Aprobación de la moción sobre el anteproyecto de la Ley de la Reforma Eléctrica.

“El pasado mes de Julio el Gobierno del Estado inició un proceso de profundos cambios normativos agrupados en la denominada Reforma Energética. Recientemente ha aprobado también el anteproyecto de Ley del Sector Eléctrico que ha remitido a Cortes para su tramitación urgente y entrada en vigor inmediata.

No es aceptable que una reforma de la profundidad y alcance de ésta, que modifica una ley vigente durante los últimos 16 años, se realice en apenas cuatro meses sin transparencia ni una adecuada discusión con los agentes implicados.

La reforma de la ley del sector eléctrico afecta directamente a las corporaciones locales en tres cuestiones de gran importancia:

En primer lugar debido a que va a suponer una fuerte y nueva subida –ya lo hecho en un 60% en los últimos 5 años- del precio de la electricidad al aumentarse el término fijo de la misma. El coste de la electricidad siempre ha sido una parte relevante del presupuesto municipal, que además ahora se verá sujeto a periódicos ajustes previsiblemente siempre al alza. Además la reforma permitirá a las compañías eléctricas

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

komertzializatzaileei elektrizitate-hornidura mozteko baita oinarrizko zerbitzuetan ere: su-hiltzaileak, osasun-zentroak, ikastetxeak, ...

Bigarrenik, fakturaren igoera horrek are gehiago eragindo die egoera ekonomiko ahulean dauden herritarrei, eta pobrezia energetikoaren arazoa areagotu egingo du; eta ustea da dagoeneko biztanleriaren %10ak jasaten duela pobrezia hori, eta, horrenbestez, gaur egun, gainera, udal askok aurre egin behar diete bertako gizarte-zerbitzuetatik.

Azkenik, inpaktu negatiboa edukiko du udalerriko ekonomi jardueran, berriztagarrien planta berriak eraikitzeo atzerapenari eusten baitio, eta, gainera, daudenetan, banaketa murrizten du, eta autokontsumoa ere blokeatu egiten du. Horrek berarekin dakar sektorerazuzenean edo zeharka lotutako enpleguak suntsitzea, inbertsioak galtzea, instalazio berrien garapenari lotutako diru-bilketa murriztea edo kostuak handitzea merkatari txikiei eta industriei, tarifak igo egiten direlako.

Erreformak adierazten du berriztagarriak direla sistema elektrikoaren ekonomiaren iraunkortasun ezaren arduradun bakarrak, eta gero eta zor handiagoa daukate, eta gobernu ez da asmatzen ari hori kontpontzen. Adierazi beharra dago berriz:

Kontsumitzen dugun energia elektrikoaren zati handiena hornitu dezakete berriztagarriek. Adibide gisa, urteko lehenengo 9 hilabeteetan kontsumitutako energia elektrikoaren %40aren ekarpena egin dute. 2009tik, ordea, energia berriztagarriak itozteko politikak aplikatzen dira, ikatzaren, gasaren eta nuklearraren mesedetan. Erreformak sakondu egiten du norabide horretan, planta berriak eraikitzeo atzerapena mantenduz, eraikitako dauden plantetarako ordainketak beherantz aldatuz eta gerora iragarri ezin den ordainketa-diseinu bat ezarriz.

comercializadoras cortar el suministro eléctrico incluso para los servicios esenciales: bomberos, centros sanitarios, colegios, etc

En segundo lugar esta subida de la factura afectara todavía más a los ciudadanos en situación económicamente vulnerable, agravando el problema de la pobreza energética, que se estima sufre ya un 10% de la población, y a lo que hoy ya muchos ayuntamientos tienen que hacer frente desde sus servicios sociales.

Por último va a tener un impacto negativo sobre la actividad económica del municipio pues mantiene la moratoria en la construcción de nuevas plantas renovables, reduciendo la retribución en las existentes y bloqueando el autoconsumo, lo que supone la destrucción de empleos vinculados directa o indirectamente al sector, la pérdida de inversiones, la reducción de la recaudación asociada al desarrollo de nuevas instalaciones o el aumento de costes a pequeños comerciantes e industrias por el aumento de las tarifas.

La reforma señala a las renovables como únicas responsables de la insostenibilidad económica del sistema eléctrico, sometido a una deuda creciente que el gobierno no está sabiendo resolver. Es nuevamente necesario señalar que:

Las renovables pueden ser proveedoras de la mayor parte de la energía eléctrica que consumimos. Como ejemplo los primeros 9 meses del año han aportado el 40% de la energía eléctrica consumida, sin embargo desde 2009 se aplican políticas de ahogamiento de las energías renovables, en beneficio del carbón, el gas y la nuclear. La reforma profundiza en este sinsentido, manteniendo la moratoria de construcción de nuevas plantas, modificando a la baja retribuciones para las plantas ya construidas y con diseño retributivo no predecible a futuro.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Autokontsumoa gailendu egingo den errealitate bat da, kostuengatik eta erraztasunagatik, eta, gainera, herritarrak sarera eraman dezake berak sortzen duen elektrizitatearen zati bat kontsumitzen ez duenean. Horrela, galerak saihesten ditu garraioagatik eta subirautza energetikoan aurrera egiten da. Gauzak horrela, autokontsumo delako hori blokeatu egin dute sortzearen gaineko peaje bat ezarriz; hori ez da egin munduko beste inongo herrialdetan.

Adierazi dugun bezala, berriztagarriak aberastasun-iturri izaten ari dira gure herrialdean, eta diru-sarrera handiak sortzen dituzte Udal askorentzat, oso sakabanatuta baitaude lurraldean potentzi bazu samarreko instalazio asko, erregai fosilen eta nuklearren zentral handien aldean. Are garrantzitsuagoa da enplegua sortzeko erakutsi duten gaitasuna, ingeniartzatik eta eguzki-panelen eta aerosorgailuen fabrikaziotik hasita, jarri eta mantentzeraino; eta biztanleria txiki eta ertainen ekonomi jarduera biziberritzeko gaitasuna dute.

Eraginkortasuna, aurrezpena, autokontsumoa eta berriztagarriak beharrezko tresnak dira energia-inportazioa murrizteko., Mendekotasun izugarria duen herrialde batean (%80, eta Europar Batasunaren batezbestekoa %50 da), lehentasunezkoa izan beharko luke eredu energetikoa aldatzea, petrolioaren eta gasaren prezio-igoeretatik babesteko.

Berriztagarriek dituzten primak ingurumen-, gizarte- eta hornidura-kostuak ordaintzen dituzten konpentsazioak dira, eta gainerako iturriek ez dituzte horiek internalizatzen. Eta ohizko energiak jasotzen dituzten beste sari edo pizgarri handien antzekoak dira, haien merkatu-ordainetatik harago. Berriztagarriek, gainera, jaitsi egiten dute elektrizitatearen handizkako prezioa.

El autoconsumo, una realidad que se impondrá pronto por costes y sencillez, con la que ciudadano puede ceder parte de la electricidad que genera a la red cuando no la consume, evitando pérdidas por transporte y avanzando en soberanía energética, ha sido bloqueado con un peaje sobre la generación que no se ha realizado en ningún otro país del mundo.

Como se ha señalado, las renovables vienen siendo una fuente de riqueza en nuestro país, generando cuantiosos ingresos para muchos Ayuntamientos, por la amplia dispersión territorial de muchas instalaciones de potencias relativamente bajas, en contraste con las grandes centrales de combustible fósil y nuclear. Aun más importante es su demostrada capacidad de generación de empleo, desde la ingeniería y fabricación de paneles solares y aerogeneradores, hasta la instalación y el mantenimiento, con capacidad de revitalizar la actividad económica de medianas y pequeñas poblaciones.

Además la eficiencia, el ahorro, el autoconsumo y las renovables son instrumentos necesarios para reducir las importaciones energéticas. En un país con una altísima dependencia (un 80% cuando la media de la Unión Europea es del 50%), debería ser prioritario un cambio del modelo energético para protegernos del alza de los precios del petróleo y el gas.

Las primas a las renovables son una compensación que retribuye los costes ambientales, sociales y de suministro que el resto de fuentes no internalizan, siendo análogas a otras cuantiosas primas o incentivos que reciben las energías convencionales más allá de su retribución de mercado. Las renovables además bajan el precio mayorista de la electricidad.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Dagoeneko onetsita edo izapidetzen ari diren eta bultzatu dituzten neurriei dagokienez:

Tarifaren defizita –estatuak elektrizitate-enprekin daukan zorra– diru-bilketa igoz kopondu nahi dute, elektrizitate-kontsumoa eta kontusmitzaileek ordaintzen duten prezioa igoz, sakoneko erregulazio-arazoak konpontzen saiatu gabe eta aspalditik nuklearrek eta hidraulikoek jasotzen dituzten zerutik eroritako etekinak mugatu gabe.

Ordainagariaren egitura aldatu da, energiaren kontsumoari lotuta ez dagoen haren zati finkoaren pisua handituz eta, beraz, kontusmoan aurrezpena e eraginkortasuna motel daitezen eraginez. %10 inguruko igoerak dira, 5 kW-ko potentzia kontratatuta daukan kontusmitzaile ertain batentzako.

Elektrizitatearen Sektoreko Legearen Aurreproiektua kontraesanean dago iraunkortasuneranzko aurrerapausoekin; hain zuzen ere, Eraikitze Kode Teknikoa eguneratzerari eta Birgaitzeari buruzko 8/2013 Legearekin. Lege hori Sustapen Ministerioak egin du, ekonomia berraktibatze eta enplegua sortzeko eraikinen energiaren autokontsumoaren, eraginkortasunaren eta birgaitzearen bidez, Energi Eraginkortasuneko Europako Zuzentarauak betetze aldera. Erreforma elektriko honekin, ez da bideragarria izango hori gauzatzea.

Neurri-multzo horrekin ez da bultzatzen klima-aldaketaren aurkako borroka elektrizitatea sortzeko sektoretik. 2012an, sektore horrek lagundu zuen gehien CO₂ isurketetan, guztira, %23,5. Klima Aldaketari buruzko Gobernu Paneleko azkeneko txostenak, irailaren amaieran publiko egin zenak, berretsi egiten du tenperaturen igo eta prezipitazioak murriztu egingo direla eta, beraz, ur erabilgarri gutxiago izango dela Mediterraneoaren arkuko herrialdeetan. Gure herrialdeak jasango du eragin handiena Europar. Isurketen murrizketa

El conjunto de medidas impulsadas, ya aprobadas o en tramitación:

Pretende solucionar el déficit de tarifa –la deuda que el estado tiene con la eléctricas– con el aumento de la recaudación mediante el crecimiento del consumo eléctrico y del precio que pagan los consumidores, sin entrar a resolver problemas regulatorios de fondo ni limitar los beneficios caídos del cielo que reciben hace años nucleares e hidráulicas, cuya propiedad es de las grandes eléctricas.

Ha modificado la estructura del recibo aumentando el peso de la parte fija de la misma no asociada al consumo de energía y por tanto desincentivando el ahorro y la eficiencia en el consumo, suponiendo subidas de aproximadamente un 10% en un consumidor medio con una potencia contratada de 5 kW.

El anteproyecto de Ley del Sector Eléctrico entra en contradicción con avances hacia la sostenibilidad. En concreto con la Ley 8/2013 de Rehabilitación y la actualización del Código Técnico de la Edificación, que ha elaborado el Ministerio de Fomento para reactivar la economía y crear empleo a través del autoconsumo, la eficiencia y la rehabilitación energética de edificios en cumplimiento de las Directivas Europeas de Eficiencia Energética. Con esta reforma eléctrica será en la práctica inviable.

Con este conjunto de medidas no se impulsa la lucha contra el cambio climático desde el sector de la generación de electricidad, que en 2012 fue el que más contribuyó con un 23,5% del total a las emisiones de CO₂. El último informe del Panel Gubernamental sobre Cambio Climático, hecho público a finales de Septiembre, confirma el aumento de las temperaturas y la reducción de precipitaciones y del agua disponible en los países del arco mediterráneo. Nuestro país será uno de los más afectados de Europa. Retrasar la reducción de emisiones nos

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

atzeratzeak askoz ere egoera zailagoan jarriko gaitu etorkizun hurbilean.

Espainiak, gianerako bazkide europarrek bezala, 2007ko martxoan erabaki zuen hiru helburu betetzea 2020rako: %20 murriztea berotegi-efektuko gasen isurketa 1990arekiko, %20 hobetzea energi eraginkortasuna eta jatorri berriztagarriko oinarriko energiaren %20ra iristea. Europako Batzordeak kezka agertu du, gobernuaren politika elektrikoak dakarren mehatxuagatik, konpromiso horiek betetzen ez direlako.

Azkenik, behin eta berriz adierazi beharra dago erreforma hori eragindakoen parte-hartzerik gabe prestatu dela. Ez dute parte hartu ez herritarrek, ez administrazio ukituek, ez kontsumitzaileek eta sektoreko enpresek; eta kritika zorrotzak jaso ditu bai organo erregulatzailearen aldetik (Comisión Nacional de la Energía), bai Comisión Nacional del Mercado de la Competencia delakoaren aldetik.

Ondorioz, Udal Batzarrak, aho batez, erabaki du:

1.- Gaitzespena agertzea Gobernuak onetsitako sektore elektrikoaren erreforma-legearen aurreproiektuarekiko.

2.- Gobernuari dei egitea berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko gaian hartutako konpromisoak errespetatu ditzen eta energia berriztagarriak eta energia-aurrezpena bultzatu ditzen.

3.- Udalak, era berean, eraginkortasuna, aurrezpena eta berriztagarriak bultzatzeko konpromisioa hartzen du, bere eskumenen esparruan. “

Parte hartzeak:

...Jose Ignacio Asensio Bazterra: “*Ez dakit hau mozioa bat edo tesi bat den, baina erabat ados, nire botoa baiezkoa izango da.*”

colocará en una situación mucho más difícil en un futuro muy próximo.

España, como el resto de los socios europeos, acordó en Marzo de 2007 cumplir tres objetivos para el año 2020: reducir en un 20% las emisiones de gases de efecto invernadero con respecto a 1990, mejorar en un 20% la eficiencia energética y alcanzar el 20% de energía primaria de origen renovable. La Comisión Europea ya ha manifestado su preocupación por la amenaza que supone la política eléctrica del gobierno en el cumplimiento de estos compromisos.

Por último, hay que insistir en que esta reforma se ha preparado sin participación de los afectados, ni ciudadanos, ni administraciones afectadas, ni consumidores ni empresas del sector, y con severas críticas tanto del órgano regulador, la Comisión Nacional de la Energía, como de la Comisión Nacional del Mercado de la Competencia.

Consecuentemente, el Pleno del Ayuntamiento, por unanimidad, acuerda:

1.- Mostrar el rechazo al anteproyecto de ley de reforma del sector eléctrico que ha aprobado el Gobierno.

2.- Emplaza al Gobierno a respetar los compromisos adquiridos en materia de reducción de emisiones de gases de efecto invernadero, impulso de las energías renovables y ahorro energético.

3.- El Ayuntamiento a su vez se compromete al impulso de la eficiencia, el ahorro y las renovables en el ámbito de sus competencias.”

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

... Jon Aldazabal Etxeberria, EAJ: "Guk ere gure adostasuna emango diogu mozio honi. Aipatu ondorioak maila guztietan ematen direla, bai herritar mailan, bai enpresa mailan. Energia berriztagarriei izugarritzko kaltea egiten zaio horrelako aurreproiektu bat aurrera ateratzen bada. Defizit elektrikoari konponbide bat eman nahian, kaltea areagotu egiten da. Gure patriketan gutako edozein konturatzen da. Mozioan jartzen duen bezala, azkeneko urtetan %60 igo egin da, eta 5 edo 6 hilabetero egiten dizkigute horrelako sariak. Herritar ahulenak pairatuko dute egoera hau, kalefakzioa gutxiago jarrita. Horiekiko elkartasuna adierazi nahiko genuke eta elkartasuna adierazteko erarik onena honen aurka joatea da. Gaur bertan Eusko Jaurlaritzako Industrial Sailak alegazioak formulatu ditu enpresa ikuspegi batetik, baina enpresa ikuspegi horrek azken batean herritarrengan izango du bere eragina, eta nolabait esaten dena da, Euskal Industrian izango dituen ondorioak oso handiak izango direla. Batik bat, produkzioan energia berriztagarrien alde apustua egin dutenak kogenerazioa sustatuz, horrek ekarriko du kaltea, bai konpetitibidade aldetik eta baita ere enpresen bizi iraupenen ondorioetan. Horregatik, gure botoa aldekoa izango da."

...Asier De Los Rios Soraluze. Bildu: "Gobernuak planteatutako erreforma energetikoak ez ditu konpontzen sektore elektrikoaren arazoak. Arrazoi batzuk medio, ezabatu egiten du erregimen berezia eta babesa kentzen dio atzerako eraginarekin. Mesede egiten diete teknologia zikinei: gasari, ikatzari eta nuklearrari. Adibide gisa hor dago Garoña; berriro irekitzea nahi dute, edo martxan jartzea behintzat bai, eta eragotzi egiten du autokontsumoa, ordainketa gehigarriak inposatuta. Horrela ezinezko bihurtzen da energia auto-ekoiztea etxean, ekoizle handien mesedetan. Erreformak konpainia elektriko handiei baino ez die mesede egiten. Oztopatu egiten ditu, alde batetik, energia berriztagarriak eta, bestetik, energia modu eraginkorrean sortzea eta erabiltzea. Egia da beharrezkoa dela erreforma bat oztopoak kentzeko aurrezkiari, eraginkortasunari eta energia berriztagarriak erabiltzeari. Energia berriztagarriak dira gutxien kutsatzen dutenak eta merkeenak, izan ere energia horien iturriak garbiak eta bukaezinak dira eta gure herrialdean bertan ekoizten direnez, saihestu egiten dira inportazio gastuak. Horiek horrela, erreformak bi kolektibo nagusiaren gainean botatzen du irtenbidearen zama."

Jarraian, mozioa bozketara jarri da eta Udaltzarak, aho batez, **onartu du**.

7.- Erregu-galderak.

7.- Ruegos y preguntas.

... Jokin Azkue Arrastoa: "Azkeneko bi Bilkuretan ez da akordio administratibo zehatzik hartu, gehienak mozioak izan dira eta mozioak noski bere garrantzia dute, baina jakin nahiko nuke ez ote dagoen beste gairik edo akordio administratiborik hartu beharrik."

... Ibai Iriarte San Vicente: "Departamentuetatik gairik sartu ez badute ez daudelako da. Bilkuraren aurretik Tolosan Lotzeneko Administrazio Kontseilua egin dugu eta hor akordio bat hartu da, baina hor geratzen da. Azken urte hauetan Udaletik sustatu diren sozietate baten izenekin egin da, nahiz eta sozietatea %100 publikoa izan eta Udalarena izan. Beraz, momentu honetan ez dago ezer eta, egongo balitz, pasako litzateke, nola ez."

Bukatzeko, azken egunetan kalean dabilen istorio bat argitu nahiko nuke hemendik: Udaletxean sartu da supermerkatu bat irekitzeko lizentzia eskaera eta Hirigintza batzordean gaia tratatua da.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.02.25

Sustatzailea pribatua da, hau da, lur sailaren jabeak pribatuak dira eta bere sustapenean lege berme guztiak betetzen dituzte. Udalari proiektua gustatu ala ez gustatu, eta Udal Gobernu honi ez zaio gustatzen, ezin dugu ezer egin hori ekiditeko. Ez zaigu gustatzen, argi dago; komertzio txikia da sustatu beharrekoa. Komertzio txikiak ematen dio herriari bizitza, komertzio txikia da enplegu gehien sortzen duena, komertzio txikia da kaleak dinamizatu, kalitatezko enplegua sortu eta gertutasuna erakusten duen sektorea. Berme juridiko legal guztiak ditu eta Udalak ezin du horren aurka edo horrekiko ezer egin. Argi daukagu jarraituko dugula Tolosako merkataritza txikia sustatzen, Tolosako merkataritza elkartearekin lanean eskuz-esku, helburu berdina dugulako, Tolosa bizi bat, Tolosa dinamiko bat, Tolosa indartsu bat sortzea, indartzea eta bideratzea. Bestalde, etzi, Ostegun Gizona, Tolosarron festa, kasik kasik nagusia, beraz, ondo pasa, pasatu gabe, noski, errespetutik, berdintasunetik eta parekidetasunaretik.”

Besterik gabe, gaueko zortzi t´erdietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho y media de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA